

Gure argi solarreko palopostiak ideiari forma ematean, konturatu gara proiektua aurrera eramateak kostuak dituela, eta horiek ondo ulertzea garrantzitsua da. Ez dugu kalkulu konplexuak egin, baina bai ikusi ditugu zein baliabide behar ditugun, zer jarduera egingo ditugun eta zein elkarte izango ditugun. Hori argi edukita, errazagoa da gure negozioa izango dituen gastuak antolatzea eta kontrolatzea.

Lehen jarduera nagusia ekoizpena izango da. Guk ez ditugu eguzki-panelak fabrikatuko, baina bai sistema osoa diseinatu, muntatu eta instalatu. Horrek esan nahi du materialak aukeratzea, argiak non kokatu erabakitzea, eta instalazioa egitea gure ardura izango dela. Jarduera honek baditu kostu zuzenak: luminaria solarrak beraiek normalean 260 € inguruan balio dute eta instalazioa —posteak, zimendua, muntaketa eta konexioak— normalean 700 eta 3.000 € artean kostatzen da farola bakoitzeko, instalazioaren konplexutasunaren arabera. Guzti horrek azaltzen du zergatik paloposti solar baten azken prezioa bezeroari 1.200 eta 2.500 € artean kobratzea egokia dela uzte dugu

Bigarren jarduera garrantzitsua arazoen konponketa eta mantentzea izango da. Argiteria publikoa denez, matxura txikiak saihestezinak dira: panel batek ez kargatzea, kable batek tentsioa galtzea, edo bezeroak aldaketaren bat eskatzea. Horregatik, zerbitzu honek bere kostu propioak ditu. Mantentze estandarrak urtean 50–100 € balio du farola bakoitzeko, eta hori da egiaztapen bisitak, garbiketa oinarrizkoak eta bateriaren kontrola estaltzen dituenak. Mantentze “plus” zerbitzuak non konponketa txikiak sartzen diren urtean 100–150 € balio du farola bakoitzeko. Kostu horiek justifikatzen dira teknikaria desplazatu behar delako, ordezkariak erabiltzen direlako eta sistemaren biziraupena luzatzen delako.

Azkenik, plataforma digital eta sare sozialen jarduerak funtsezkoak izango dira bezero berriak erakartzeko eta gure lana modu profesional batean azaltzeko. Webgune bat sortzeak 1.000–2.500 € arteko kostua izaten du (hor sartzen dira diseinua, programazioa, edukia eta argazkiak). Ondoren, webgunearen urteko mantentzeak, hau da, hosting-a, eguneraketak eta segurtasuna— 200–600 € kostatzen du urtean. Sare sozialen kudeaketak denbora eta edukiak eskatzen ditu, eta publizitate digitaleko kanpaina puntualek 500–1.500 € arteko aurrekontukoa izango dela uzte dugu. Kostu horiek guztiak justifikatzen dira, azken finean, online presentziak bezeroak erakartzen dituelako eta konfiantza sortzen duelako.